

## SAGUA ITSASOAN

Sagu itxurako mendi eder bat bada Gipuzkoako kostaldean, itsasoan bizi dena. Mendi txikia izan arren, xarmagarria eta istorioz eta historiaz betea dago, alajaina.

Beñatek bazuen gogoia Elkanoren lurraldea ezagutzeko. Ikastolan kontatu zioten Elgoibarren itsasaldera doan trena hartuz gero, munduari bira eman zion lehen itsasontziko nagusiaren herrira iritsiko zela, hori bai, lehenik trena utzi eta autobusez abiatu beharko zuela herri eder horretara, trena ez baita bertara iristen.

Halaxe egin zuen Beñatek. Asteburu eguzkitsu batean abiatu zen eta trena eta autobusa hartu ondoren iritsi zen Elkanoren herrira, Getariara. Autobusa itsas ertzeko bidetik zihoala ikusi ahal izan zuen Beñatek sagua eta honen isatsa, Getariako moila eta herriak osatua.

Bazituen bertan amaren aspaldiko lagunak, Lili eta Peru. Beraien etxean hartu zuen aterpea Beñatek. Hondartzan bainu freskagarria hartu ondoren, antxoa goxo batzuk jaten ari zen bitartean, Lili eta Peruk proposamen misteriotsu bat egin zioten.

Eguzkia sartzerakoan, linterna bana hartu eta San Anton mendira abiatu ziren, bertan bizi diren izaki misteriotsuak ezagutzera.

Ilargi beteko gaua zen eta izar eta planetak agerian zeuden. Agian linternen beharrik ez zuten izango. Primeran!!

Gorantza hasi orduko, Beñatek galdera bat egin zien lagunei:

- Zergatik izena du San Anton Mendia, sagu forma baldin badu?
  - Kontua da Anton izeneko druida bat bizi zela garai batean mendian. Druida honek sagu bat eramaten zian beti sorbalda gainean. Druida hura, inork sekula ikusi ez bazuen ere, espiritu libre eta adoretzuko izanik, Getariako herria zaintzen zuela.- kontatu zion Peruk.
  - Zaindu... zaindu... nola zaintzen zuen herria?.- galdegin zion Beñatek.
  - Ba begira... kondairak dio Elkanok gaztetan osasun arazoak zituela eta Elkanoren familia aberatsa izanik, barku-jabea hain zuzen, Donostiako mediku famatuenak ekarri zituztela Elkanoren gaisotasuna sendatzera baina ez zutela sendatzerik lortu.
- Arratsalde batean, Elkanoren ama, Anton semeak txalupaz Sagura eraman zuen, mendia eta itsasoak bat egiten zuten leku zoragarri hartara, astero egiten zuen bezala, haizea sentitu eta kresala usaintzera. Bazuen, gainera, lasaitzeko beharra. Oso kezkatuta zebilen seme zaharrena sendatzen ez zelako. Saguaren egin ohi zuen bide berbera egin zituen. Lehenik ubarroien gotorlekua ikustera joan zen. Asko maite zituen ubarroiak; haiei so egotea arnasa berreskuratzea bezala zen. Ondoren, Katxaporaino igo zen, Saguaren tontorreraino, bertatik euskal

kostaldeari begira egoteko asmoz. Baleen eta ekaitzen etorrera begiztatzeko erabiltzen zen Katxapo. Balea ikusiz gero, sute bat pizten zuen bertan zaintzaile zegoenak herritarrak prestatu eta itsasora irten zitezten bale-arrantzara. Ba, Katxapora iritsi zenean, egurrezko ontzi batean belar batzuk topatu zituen txukun-txukun bilduak. Lehenago ere ikusiak zituen baina ez zuen sekula pentsatu erabilerari izan zezaketenik. Etxera eramatea erabaki zuen. Bazen Getariako Azkizu auzoan belarrak ondo ezagutzen zituen Alikante baserriko amonari galdetuta, hark esan zien *armeria euskariensis* izeneko belar horrek propietate bereziak zituela entzun izan ziola bere amari behin baina ez zuela sekula erabili. Elkanoren ama ausarta izan eta semeari belar horrekin enplasto eta infusioak prestatu zituen eta, arranopola!!! Elkano sendatu egin zen. Horrela, Anton, druida ikusezinaren esku-hartzeari esker, munduari buelta eman ahal izan zion Elkano handiak eta Saguari San Anton izena jartzea erabaki zuen Elkano itzuli zenean.

Beñat zoratzen zegoen Peruk kontatutako istorioarekin eta irrikan San Anton mendira igotzeko. Seguru zegoen bertan istorio gehiago entzungo zituela-eta.

- Beñat, zer ikusten duzu horko horma horretan?.- galdetu zion Lilik gorantzako bidean lehen geldialdia eginda.
- Uauuu...aizue, beldurra ematen dute kareharrian erosioak eragindako forma hauek!.- oihiu egin zuen Beñatek.
- Ba, ile luze horiek eta aho zabal hori hemen bizi den sorginarenak dira eta alboan dauden bi borobil horiek bi ilargi ohea azpian dutela, sorginaren ohea, noski!

Aurrera jarraitu zuten eta bide nagusia albo batera utzita, bidetxurra hartu zuten. Hasi bezain pronto, sagu gorputza eta druida aurpegia duen irudi bat aurkitu zuten tupustean. Belarrez inguratuta, ezkutuan eta zaintza lanetan ageri zen gizon zaharra.

Bidean gora eginda, sorginaren kobazuloa eta akelarreetarako plaza ikusi zituzten, Getariako gau-argiak sua irudikatzen zuten bitartean. Ikusgarria zen ikuskizuna, ederra.

- Egin al duzue festa berezirik hemen? .- galdetu zuen Beñatek.
- Baii... Beno, festa baino jolasa gehiago. Itsasoan geundela irudikatzen genuen harritarte horretan sartuta eta ekaitzaren ondorioz, hondartzara iritsi eta kobazulo horretan lo egiten genuela... kar-kar-kar... ahateak jarri zituzten arte!!!.- farrez jardun zuten hirurak.
- Goazen gorago! Begira-begira, bilutsik dagoen emakumea da hori!!! Zertan ari da? Eguzkia hartzen? Plazera sentitzen duela dirudi!!! Hau da hau akelarrea!!! kar-kar-kar.

Bidean gora, Lilik orro ikaragarria egin zuen Beñat izutzeko helburuarekin.

- Lili, arraio alena!! susto itzela eman didazu! Zer da hor dagoen aurpegi beldurgarri hori? Akerra? Gizaki-demonioa?

- San Anton mendiaren zaindaria, motel!!!.- erantzun zion Peruk, barreari ezin eutsirik...
- Goazen gorantz eta lasai Beñat, tarte batean zuhaitzen itzalak besterik ez ditugu ikusiko-eta. Aupa hi!!

Izututa zihoan Beñat. Itzalen lekuan erraldoiak eta mamuak ikusten zituen. Eskerrak segituan iritsi ziren Katxaporaino. Handik, kostaldeko itsas-argiak ikusi zitezkeen, Pasaiaiko Plata, Donostiako Santa Klara eta Txubillo mendikoak alde batera, eta Matxitxakokoa eta La Gaviota gas-edukiontzi itsastarra Bizkaia aldera, eta baita arrantzan zebiltzan txalupak eta itsasontziak ere. Txibi eta antxoaren arrantzan ariko ziren batzuk eta besteak.

- Ederra ikuspegia!!! Merezi zuen pasa dudan beldurra pasa izana!!!.- adierazi zuen Beñatek.
- Goazen beste aldetik.- proposatu zuen Peruk. Harrizko aulki batera iritsi zirenean gehitu zuen: hau da gure amaren leku maiteenetako bat: ezkerrean kaioak hegan haizearekin borrokan, aurrean itsas-argia eta ezkerrean kostaldeko argiak. Pagotxa da hain ingurune ederrean bizitzea-gero!!!

Beheranzko bidean ere irudi miresgarriak ikusi zituen Beñatek. Oraingoan, beldurrik ez zuen izan. Saguaren atmosfera bereziaz kutsatu zela zirudien, bertakotu, alegia.

- Itsasoko erregea ikusiko duzu hor aurrean, hego eta guzti. Hanken orde, arrain-buztana du eta hiruhortzekoa, noski. Ikusi-ikusi haizeak nola jarri dizkion ilea eta bizarra mugimenduan!!!

Aurrerago, zuhaitz enbor batean ikusiko zuen aurpegi greziar itxurako bat eta, eskuin horman bi arrantzale sarea sorbaldan dutela bidean aurrera, eta haien alboan, emakume baten burua, zapi batez estalia.

- Amabirjina irudikatu nahi omen du.- esan zuen Peruk. Arrantzaleei zorte ona opa nahi dien amabirjina, diotenez. Jendeak loreak jartzen dizkio burugainean.
- Eta nork egin ditu irudi guzti hauek?.- galdetu zuen Beñatek. Ze, ni beldurtia banaiz baino ez inozoa, aizue!!!!
- Ba Antton druidak bere eragina izango zuen noski, baina gehienak Fernandesez egin ditu, aspalditik Getarian bizi den artista portugaldar ezagunak eta amabirjina Larrañaga eskultore eibartarrena omen da.
- Kontxo!! Ba eskerrik asko bi artistei egin duten ekarpenagatik!! Ederra izan da hain leku berezia ezagutzea.

Saguaren buztanera iritsi zirenean, Peru eta Lili agurtu zituen Beñatek laster, berriro, Getarian elkar ikusiko zituen itxaropenarekin.